

1. Pasabidea: autobidearen irteeran Eibarrerantz, udalerriak Zaldibarrekin daukan mugan

Pasabide honetan dagoen semaforoa ez dago besteekin sinkronizatuta eta, ondorioz, funtzionamendu-denborak erraz alda daitezke, beste pasabide batekoen menpe egon beharrik gabe.

Pasabide honetan oinezkoek espaloi bien artean gurutzatu beharreko distantzia 9 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu denbora 18 segundo dira.

Oinezkoak pasatzeko egun argi berdez dagoen denbora 17 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 52 segundo.

Ibilgailuen kasuan, argi berdez pasatzeko duten denbora 46 segundo dira eta argi gorriz zain egotekoa 24 segundo.

Gainerako semaforoak argi hori keinukariz daude.

Hobekuntza moduan proposatu da oinezkoak pasatzeko argi berdez egoteko denbora 20 segundo izatea.

Halaber pasatzeko denborak egokitzea proposatu da, bai ibilgailuentzat eta bai oinezkoentzat, lanegunetarako bat jarritz eta beste bat, ezberdina, jaiegun eta gauetarako.

